






NIK, ETXEAN ETA KALEAN  
BELDUR BARIK JARRERA!

BELDUR  
BARIK  
#LEHIAKETA



NIK,  
BAKARRIK  
ETA TALDEAN  
BELDUR BARIK  
JARRERA!

NIK,  
GAU ETA EGUN  
BELDUR BARIK  
JARRERA!



**LEHIAKETAREN OINARRIAK**

**ERMUA**

**BELDUR BARIK JARRERA 2020**

ANTOLATZAILEA  
ORGANIZA



BULTZATZAILEAK  
IMPULSAK

araba álava

Bizkaia

Gipuzkoa Foru Aldundia

EUDEL

LAGUNTZAILEAK  
COLABORAN

Euzko Lehiaketa Organiza

Euzko Lehiaketa Organiza

Euzko Lehiaketa Organiza

eitb

## **Edukia**

|                                                           |           |
|-----------------------------------------------------------|-----------|
| <b>Lehiaketaren xedea</b>                                 | <b>3</b>  |
| <b>Beldur Barik jarreraren definizioa</b>                 | <b>3</b>  |
| <b>Aurkezten diren lanen euskarria</b>                    | <b>5</b>  |
| <b>Lanen balorazioan aintzat hartuko diren irizpideak</b> | <b>5</b>  |
| <b>Nortzuk eta nola parte hartu</b>                       | <b>6</b>  |
| <b>Gehienez aurkeztu daitekeen lan kopurua</b>            | <b>8</b>  |
| <b>Aurkeztutako lanek bete behar dituzten baldintzak</b>  | <b>8</b>  |
| <b>Nola aurkeztu lana lehiaketara</b>                     | <b>10</b> |
| <b>Lanak lehiaketara aurkezteko epeak</b>                 | <b>11</b> |
| <b>Sariak</b>                                             | <b>11</b> |
| <b>Epaimahaia</b>                                         | <b>13</b> |
| <b>Epaimahaiaren ebazpena</b>                             | <b>14</b> |
| <b>Lege-alderdiak</b>                                     | <b>16</b> |
| <b>Antolaketa</b>                                         | <b>18</b> |
| <b>1. ERANSKINA</b>                                       | <b>19</b> |
| <b>2. ERANSKINA</b>                                       | <b>20</b> |

## Lehiaketaren xedea

Beldur Barik programak **Beldur Barik Jarrera!** ikus-entzunezko lehiaketaren 11. edizioa antolatu du. Lehiaketaren xedea da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen adierazpenak onartu, baloratu eta bultzatzea. Lehiaketara aurkezten dituzten ikus-entzunezko lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dira.

Proiektu parte-hartzaileek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Alegia, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da: nesken ahalduztetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka.

## Beldur Barik jarreraren definizioa

1. Beldur Barik jarrerak "bere bikote edo bikote-ohiaren eskuz indarkeria fisikoa pairatzen duen emakume heldua"ren estereotipoa gainditzeko eskatzen du eta neska gazteek euren bizitzen esparru guztietan sufritzen dituzten indarkeria

sexistaren manifestazio anitzak ikusarazteko lan egiten du, hauek euren eguneroko testuinguru eta esparru guztietan hautematen den desorekaren ondorio direlarik.

2. Beldur Barik jarrera gazteek sufritzen duten indarkeria matxistaren beste manifestazio batzuk (translesbohomofobia) hautematean ere badatza.
3. Honetarako, irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da eta indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste adierazpenak ematea ahalbidetzen duten faktoreen inguruan hausnarketa egiten du.
4. Erreferente positiboak erakustea du helburu: ahaldundutako neska indartsuak eta indarkeria sexistaren aurkako borroka aktiboan inplikatzan diren mutil begirunetsuak, zeinek neskei soilik eragiten dion zerbait ez dela erakusten duten.
  - Neskak: indarkeria edo desoreka egoeren aurrean ahalduntze eta autodefentsa jarreran erakusten ditu.
  - Mutilak: Desoreken, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera autokritikoan, proaktiboan eta konprometituan erakusten ditu, korporatibismo maskulinoarekin hautsiz.
  - Gorputzen, identitateen eta sexualitateen aniztasuna ikusarazten du.
5. Indarkeria sortzen duten faktoreak, eta bere manifestazioak identifikatzeaz gain, kritikoa, urratzailea eta positiboa den jarrerarekin aurre egiten zaio.
6. Planteatzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan daitezke.



## Aurkezten diren lanen euskarria

Edozein adierazpen artistiko onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko euskarrian aurkezten bada: flashmob, errezitatutako poemak edota kameraren aurrean irakurritako hausnarketa-testuak, bideoklipak, argazkiak, fotomuntaketa, fotonobelak, lipdubak, dantzak, film laburrak, animaziozko proiektuak, proiektuen edota artelanen aurkezpenak, performanceak, herritarren esku-hartzeak, etab.

**AZPITITULUAK OSO GARRANTZITSUAK DIRA.** Azpigituluen helburua irisgarritasun unibertsala bermatzea da, hau da, mundu guztiak ulertu ahal izatea bideoaren mezua zatiren batean hitz egiten bada.

Azpigituluak ahalik eta irakurterrazenak izan daitezen, fondo beltzaren gainean hitzak zuriak izatea gomendatzen da.

## Lanen balorazioan aintzat hartuko diren irizpideak

- Originalitatea mezuak adierazteko orduan.

- Begirada aniztasuna gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeriaren adierazpenak identifikatzerako orduan.
- Aurkeztutako irtenbidearen ikuspegia eta tonua (Beldur Barik Jarrera, umorea, erantzun positiboak etab.)
- Positiboki baloratuko da irisgarritasun unibertsala bermatzeko iradokitako irizpideak kontuan hartzea.

## Nortzuk eta nola parte hartu

- 12-26 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.
- Parte hartzerako hiru kategoria daude:
  1. kategoria: 2007an eta 2008an jaiotakoak (2020an 12 edo 13 urte beteko dituztenak)
  2. kategoria: 2002 eta 2006 bitartean jaiotakoak (2020an 14-18 urte beteko dituztenak)
  3. kategoria: 1994 eta 2001 bitartean jaiotakoak (2020an 19-26 urte beteko dituztenak)

Talde-lan batean parte hartzen dutenen %40 gainerako %60 baino nagusiagoa izateagatik goiko kategoria batekoak direnean, lanak zuzenean hurrengo kategorian

parte hartuko du.

### 18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

1. eranskina edo 2. eranskina beteta aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

- o 1. Eranskina. Norbanakoen baimena: ama/aitaren zein legezko tutoreen baimena adin txikikoek Beldur Barik programan parte hartu dezaten.
- o 2. Eranskina. Taldekako baimena: ikasgela edo hezkuntza zentro bezala aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da, zentroa bera izango delarik banakako baimenak jasotzearen arduraduna.
- o Gaztelelekuak eta elkarteak: proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak aurkeztu beharko dira, eta batera aurkeztu beharko dira.

## Ermua Beldur Barik

### Nortzuk eta nola parte hartu tokiko lehiaketan

**Ermuan, Bizkaian, erroldatuta** dauden 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Ermuko Udaleko Berdintasun Sailak herriko proposamen onenak sarituko ditu. Baldintza hori betetzen den egiaztatuko da.

Taldean parte hartzen den kasuetan, gutxienez pertsona bat erroldatuta egon beharko da.

**Lanaren inskripzioan adierazi beharko da**, programaren idazkaritza teknikoak horrela erregistra dezan eta Ermuko BB lehiaketaren arduradunei jakinaraz diezaien.

## Gehienez aurkeztu daitekeen lan kopurua

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

## Aurkeztutako lanek bete behar dituzten baldintzak

- **Formatua:** Lan guztiak **bideo** formatuan aurkeztu beharko dira.
  - Bideoa honako bi plataformaren batera igo beharko da: Youtube edo Vimeo.
- **Baldintza teknikoak:**
  - Bideoek **gehienez 3 minutuko luzera** izango dute, kredituak barne.



- **Lanak lehiaketaren helburuari erantzun behar diote:** indarkeria sexista prebenitzea. Aurkeztutako lanen edukiak helburuarekin zerikusirik ez izan, edota beraren aurkakoa edota kalterakoa izanez gero, lehiaketaren antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete. Ebazpena parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.
- **Originaltasuna:** Proposamenak originalak izan beharko dute, plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsonen kopiatu gabekoak. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion egiletza probak eskatuko dira.
- Lanak ezin izango dira Beldur Barik programarekin lotuta ez dauden **beste** jaialdi edo lehiaketa batzuetara **aurkeztutakoak** izan.
- **Hizkuntza irizpideak:** Lanak euskaraz, gazteleraz, ele bietara zein bestelako hizkuntzaren baten aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelerazko azpigituluak badituzte.
- **Musika eta irudie erabilera:** Egile-eskubiderik ez dutenak erabiltzea gomendatzen dugu (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Egile-eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte-hartzaileek beraien gain hartu beharko dituzte bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela egiaztatzen bada, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.

Bestelako baldintzak:

- **18 urtetik beherakoak:** 18 urtetik beherako guztiek 1. eranskina edo 2. eranskina aurkeztu beharko dute (oinarri hauekin bat datozenak) egoki beteta web-guneko formularioan (eremu guztiak beteta eta sinatuta).
- Youtube edo Vimeora igotako bideoen deskribapenean, bideoaren izenburua erantsitko da, zein udalerritatik eta kategoriatik aurkezten den. Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.

## Nola aurkeztu lana lehiaketara

1. Igo ikus-entzutezko lana Youtube edo Vimeora. Plataforma hauek sortzen duten esteka da aurkeztu behar dena. Beldur Barik web-gunean dagoen formularioa bete ezazu, [beldurbarik.eus/eu/](https://beldurbarik.eus/eu/) helbidean. Galdetegi honetan aurretik ikus-entzunezko plataformara igotako bideoaren esteka itsatsi behar da.
2. Formularioa bete eta gero, izen-ematea zuzen burutu dela esaten duen mezua agertuko da.
3. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero, programaren idazkaritza teknikoak egiaztatuko du oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
4. Egiaztatu eta gero, idazkaritza teknikoak formularioan emandako emailera jakinarazpena bidaliko du, lehiaketan onarpena edo ez-onarpena jakinaraziz. Onartutako lanak web-gunean publikatuko dira.

# Lanak lehiaketara aurkezteko epeak

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea **2020ko irailaren 14an irekiko da, goizeko 08:00etan, eta 2020ko azaroaren 5an itxiko da, gaueko 23:59etan.**

## Ermua Beldur Barik

### Tokiko lehiaketara aurkezteko epea

Aurkezteko epea berbera da.

## Sariak

- 1. kategoriako saria: 400€
- 1. kategoriako aipamen berezia: 200€
- 2. kategoriako saria: 400€
- 2. kategoriako aipamen berezia: 200€
- 3. kategoriako saria: 400€
- 3. kategoriako aipamen berezia: 200€

- **Ikus-entzunezko lan onenari saria\***: 300€
- **Parte-hartzeari saria\*\***: 300€

Aurkeztutako lanek bai lehiaketa orokorrean, bai udalerrietako herri lehiaketetan parte-hartzeko aukera izango dute. Kontuan izan herri guztiek ez dutela Beldur Barik tokiko lehiaketarik antolatzen.

Goian deskribatutako sariei dagoeneko ezarri zaie dagokien zerga-atxikipena.

*\* **Ikus-entzunezko lan onenari saria** Beldur Barik Jarrera! adierazteko kalitatezko komunikazio artistikoko baliabideak edota kodeak erabili dituen hiru kategorietako edozein lanari emango zaio. Lehiaketaren antolatzaileek sari hau hutsik uzteko eskubidea dute. Sari honetako irabazleek beren lanaren eskubideak Emakunderi lagatzen dizkiote, gazteriari zuzendutako kanpainetarako erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.*

*\*\* **Parte-hartzeari saria** herri-bozketan boto gehien lortu dituen lanari emango zaio, baldin eta lan horrek Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean badago. Herri-bozketa azaroaren 11tik 13ra bitartean gauzatuko da.*

## Ermua Beldur Barik

### Tokiko sariak

Ermuak bere BB lehiaketa propioa antolatzen du, sari bateragarriekin.

Ermua Beldur Barik 2020 sari gehigarriak:

- 1. Mailako saria: 300 euro
- 2. Mailako saria: 300 euro
- 3. Mailako saria: 300 euro

## Epaimahaia

Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du, eta berau osatuko dute: proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak; aurreko edizioko irabazleak; eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hiru kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

## Ermua Beldur Barik

### Tokiko lehiaketaren epaimahaia

Tokiko lehiaketaren antolakuntzak epaimahai bat izendatuko du, eta epaimahai hori toki-mailan arlo hauekin zerikusia duten pertsonen osatuko dute: artea, feminismoa, berdintasunaren aldeko politikak eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka. Epaimahaiaren osaera epaia argitara ematean jakinaraziko da.

Epaimahaiak Ermuan erroldatutako pertsonen aurkeztutako lan guztiak baloratuko ditu, eta sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Tokiko sarietarako lana onartzeari edo ez onartzeari buruzko azken erabakia tokiko epaimahaiaren eskumena izango da.

## Epaimahaiaren ebazpena

Aurten, lan sarituak **2020ko azaroaren 20an** ezagutzera emango dira. Aurtengo sari-banaketara irabazleak eta sariak banatzeko ardura duten erakundeetako ordezkariak baino ez dira joango. Sari-banaketa [www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus) webgunean emango da zuzenean *streaming* bidez. Gainera, euskal artista ezberdinek topaketa girotuko dute.

Bestalde, bozketa bidezko **parte-hartzeari saria** izendatzeko funtzionamendua honako hau izango da:



- Epaimahaiak aldeztu aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, Beldur Barik Jarreraren irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin, hain zuzen ere, (oinarrietako lehen puntuak jasota datozenak). Horiek izango dira herri-bozketan parte-hartu ahal izango duten lanak.
- Parte-hartze saria izendatzeko herri-bozketa sistema **azaroaren 11n aktibatuko da, goizeko 08:00etan.**
- **Azaroaren 13ko 23:59etan** bozka gehien eskuratu dituen lanak irabaziko du parte-hartze saria. Izan ere, egun eta ordu horretan itxiko da bozketa prozesua.
- Bozketa Beldur Barik web-gunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Facebook, Twitter eta Instagram bidez.
- Prozesuan irregulartasunak hautematen badira (webgunea hackeatzea, e-mail masiboak ekoizteko sistemak erabiltzea, webgunearen administrazioaren nortasuna ordeztzea, etab.), parte-hartze saria hutsik gera liteke.

## Ermua Beldur Barik

### Tokiko epaimahaiaren ebazpena

Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren testuinguruan tokiko lanak eta epaimahaiaren erabakia ezagutaraziko dira, eta aurtengo Ermua BB tokiko sariaren banaketa egingo da.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsona guztiek konpromisoa hartuko dute beren lana erakusteko, jarduteko eta/edo aurkezteko, antolakuntzak hala eskatuz gero.

## Lege-alderdiak

Lehiaketara aurkeztutako parte-hartzaileek Beldur Barik programari baimena ematen diote euren lana erabiltzeko, Beldur Barikeko ikus-entzunezko zein inprimatutako materialak sortzeko, promozionatzeko eta hedatzeko. Parte-hartzaileek, gainera, baimena ematen dute ekintza hauetarako:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzeko (sari-banaketan, programaren aurkezpen saioetan...).
- Lanak proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara egokitzeko.
- Laneko irudiak edo pasarteak programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak, etab.).

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programaren formularioan zehaztutako harremanetarako pertsonarekin harremanetan jarriko da aldez aurretik.

Norbait klausula honekin ados ez badago, antolatzaileei idatziz jakinaraztea eskertuko da.

Lehiaketako antolakuntzak ez du bere gain erantzukizunik hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; erreklamaziorik egonez gero, beraz, bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun

osoa. Era berean, parte-hartzaileek beren egiletza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

Indarrean dauden Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europar Legebiltzarreko eta datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreari dagokionez, pertsona fisikoen babesari buruzko Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegian ezarri dena betez, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazten du emandako datu pertsonalak Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako fitxategi automatizatu batean gordeko direla, datuen tratamendua egiteko. Datuak ez zaizkio hirugarren bati emango, tartean legezko obligaziorik ez bada behintzat, eta ez zaizkio hirugarren herrialderen bati jakinaraziko. Datu hauen erabilera bakarra Emakunderen Beldur Barik programaren kudeaketara mugatzen da eta pertsonaren onespenean oinarritzen du bere tratamendua.

Interesdunek legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide ere. Datuen babesaren inguruko informazioa: [www.euskadi.eus/proteccion-datos](http://www.euskadi.eus/proteccion-datos).

# Antolaketa

Lehiaketa Emakundek antolatzen du, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, Berdinsareak eta EUDELeK bultzatzen dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzarekin.

Informazio gehiago:

[www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus)

[info@beldurbarik.eus](mailto:info@beldurbarik.eus)

Harremana: 946 535 254

## Ermua Beldur Barik

### Tokiko lehiaketaren antolaketa:

Ermuko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailak Beldur Barik programa antolatzen eta ezartzen du. Bertan, tokiko lehiaketa txertatzen da.

Informazio gehiagorako: [www.ermua.es](http://www.ermua.es)

Emakumeen Topalekua. Tfnoa: 943 171 030

[casadelamujer@udalermua.net](mailto:casadelamujer@udalermua.net)

# 1. ERANSKINA

**AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN\* BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.**

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....  
 ..... andreak/jaunak, adinez nagusi, .....zenbakidun NAN duena, eta.....  
 jaunak/andreak, adinez nagusi, ..... zenbakidun NAN duena, helbidea.....n dutenak, .....  
 telefono zenbakiarekin,..... adingabekoaren ( ..... urte dituen eta ..... e-maila duena) ama / aita (edo tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik.

**ADIERAZTEN DUGU** ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

**BAIMENA EMATEN DIOGU**, gure.....alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

**BAIMENA EMATEN DUGU, BERARIAZ**, askatasunez, espezifikoki, informatuta eta zalantzarik gabe Beldur Barik Lehiaketan parte hartzen duen gure alabari edo semeari eragiten dioten datu pertsonalen tratamenduari.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n, 2020ko .....aren .....(e)(a)n

*\* Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.*

*Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, bere 7. artikuluan xedatzen du pertsona adingabe baten datu pertsonalen tratamendua 14 urtetik gorakoa denean soilik oinarritu ahal izango dela bere baimenean. 14 urtetik beherakoen kasuan, guraso-agintearen edo tutoretzaren titularraren adostasuna baldin badago soilik izango da zilegia.*

## 2. ERANSKINA

**IKASTETXEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO.**

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:

.....  
..... andreak / jaunak, adinez nagusi,  
..... NAN zenbakiarekin, helbidea .....n,  
..... telefono-zenbakia eta ..... e-  
maila dituenak, ..... ikastetxearen edo  
elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-  
ordezkarien baimena aurretik jasota:

### **ADIERAZTEN DU**

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

**BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ,** Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n, 2020ko .....aren .....(e)(a)n